

ALDEZ AURREKO KONTSULTA PUBLIKOA, NAFARROAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO FUNTZIONARIOEN OPOR, LIZENTZIA ETA BAIMENEN ERREGELAMENDUA ONETSI ZUEN OTSAILAREN 9KO 11/2009 FORU DEKRETUA ALDATZEN DUEN FORU DEKRETUAREN PROIEKTUARI BURUZKOA	
Tramitea:	FORU DEKRETUA IDATZI AURREKO KONTSULTA
Bitartekoa:	GOBERNU IREKIAREN ATARIAN ARGITARATZEA

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publikoari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 133.1 artikulua xedatzen duenez, lege aurreproiektu bat edo erregelamendu proiektu bat egin aurretik, kontsulta publiko bat sustatzen ahalko da lege aurreproiektuetarako, eta horixe sustatuko da erregelamendu proiektuetarako, Nafarroako Gobernu Irekiaren Atariaren bidez, non jasoko baita zer iritzi duten etorkizuneko arauaren eraginpean gerta litezkeen subjektuek eta ordezkariak handieneko erakundeek, honako hauei buruz: ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak, foru dekretua onesteko premia eta egokitasuna, arauaren xedeak eta aukeran dauden alternatibak, arauemaileak eta ez arauemaileak.

Bestalde, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legeak 21. artikuluan ezartzen duenez, Nafarroako administrazio publikoek argitara eman behar dituzte kontsulta publikoak, foru legeen aurreproiektuak eta erregelamendu proiektuak egin aurretik planteatzen direnak.

Aurreikuspen horiek betez, herritarrek, erakundeek eta elkarteek, egoki iritziz gero, planteatuko arau proposamenaren gainean dituzten ekarpenak igor ditzakete helbide elektroniko honetara: **funcionpublica@navarra.es**. Ekarpenak aurkezteko epea 15 egun baliodunekoa da, argitaratu eta biharamunetik aitzina.

1. Konpondu asmo diren arazoak

Otsailaren 9ko 11/2009 Foru Dekretuaren bidez onesten da Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioen opor, lizentzia eta baimenen Erregelamendua.

11/2009 Foru Dekretu horren 13.bis artikulua arautzen du minbiziak edo bestelako gaixotasun larriak jotako seme edo alaba adingabea zaintzeko lizentzia ordaindua; lizentzia horrek berekin dakar lanaldia erdira murriztea, ordainsaria murriztu gabe, edo, salbuespenez, lanaldiaren % 75era bitarte, seme edo alaba adingabeak luze egon behar badu ospitaleraturik eta, hortaz, etengabeko zaintza zuzena eta jarraitua behar badu.

Horren ondorioz, indarreko arauaren arabera ezin da lizentzia hori eman seme edo alaba adingabea ospitaleraturik ez dagoen kasuetan.

2. Araua onestea beharrezkoa eta egokia den

11/2009 Foru Dekretuaren 13.bis artikuluan jasotako lizentziak antzekotasunak ditu Langile Publikoen Oinarrizko Estatutuari buruzko Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 49 e) artikuluan jasotakoarekin.

Planteatutako aldaketaren asmoa da araua egokitzea LPOEren 49 e) artikulua interpretatzeko eman berri den doktrina jurisprudenzialarekin bat, zeinaren arabera lizentzia aplikagarria izanen da, baita ere, adingabea ospitaleratu beharrik ez baina hura zuzenean, modu jarraian eta etengabe zaindu beharra dagoenean, eskolaturik baldin badago ere.

3. Arauak zer helburu dituen

Araua berrikusteko xedea da mota horretako lizentziak zabaltzea, haien onuradun izan daitezzen, adingabea ospitaleratuta egon zein ez, seme edo alaba adingabearen gaixotasun larria egiaztatzen duten langile publikoak, betiere gaixotasun hori sartuta baldin badago Gizarte Segurantzak kasuan kasuko prestazioa emateko oinarri gisa erabiltzen duen zerrendan eta egiaztatzen badute, baita ere, gaixotasun horrek berekin dakarrela etengabeko zaintza zuzena eta jarraitua emateko beharra; edozein kasutan, arauak ezartzen dituen gainerako betekizunak ere bete beharko dira.

4. Zer beste konponbide egon litezkeen (arauak edo arau ez direnak)

Ez da balizko bestelako konponbiderik aurreikusten.